

2010
**Koaderno
sindikalak**
Abarrekoak

Euskal gizarte segurantza sistemaren alde



LAB
Prestakuntza

Euskal gizarte segurantza
sistemaren alde



lagundu du prestakuntza sindikalerako
txosten hau finantzatzen.

iparhegoa
IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDazioa

2010

A

Aurkibidea

1. Aurrekariak5

1.1. Toledoko ituna eta horren osteko erreformak.....6

1.2. Pentsio publikoen aurkako eraso berria.....7

2. 2. Pertsona pentsiodunen egoera Euskal Herrian.....9

3. Euskal Herrian bideragarria da gizarte segurantza sistema propioa11

3.1. Euskal gizarte segurantza sistemaren ezaugariak.....11

3.2. Euskal gizarte segurantza sistemak behar dituen oinarriak.....11

1. Aurrekariak

Ongizatearen Estatuaren sorrera konpromiso historiko, sozial eta politiko baten emaitza da. Haren ezaugarrietako bat da babes sozialeko sistema finkatzen duela, osasun-, hezkuntza- eta etxebizitza-sistema publikoak garatzearen bidez, lan-merkatutik kanpo geratutako sektoreak atenditzearren bidez eta pentsio-sistemaren bidez.

70eko eta 90eko hamarkadetan, pentsio-sistema publikoek neoliberalismoaren erasoa pairatu zuten; izan ere, boterea hartu ondoren, neoliberalismoaren asmoa zen ahalik eta gehien murritztea Keynesianismotik bereganatutako Ongizatearen Estua, politika ekonomikoaren erregulazio publikoak murritzearaz batera.

Urte horietan, gobernuek besoak zabalik hartu zituzten globalizazioaren tesiak, ondasunak birbanatzeko politikak baztertu zituzten, eta hainbat enpresa eta zerbitzu finantza-kapitalaren eskuetan jarri zituzten; halaber, zerga sistemaren progresibilitatea hautsi zuten, lanari buruzko legeak erreformatu zituzten-patronalari botere handiagoa emateko-, eta lan-merkatua arautu zuten, langileak esplotatzeko teknikak bultzatzeko, prekarietaea handitzearen bidez eta lan- eta gizarte-eskubideak murritzearen bitartez.

Espaniar Estatuaren kasuan, politika keynesiarren garapena berandu etorri zen, Ongizatearen Estatuaren garapena bezala. Beraren bilakaera ez da inoiz iritsi EBko parametroetara, eta, hortaz, finkapena eta erreforma elkarri lotuta egon dira hasieraz geroztik. Gastuaren eta BPGaren arteko erlazioari dagokionez, Europako gainerako herrikin zegoen differentziari eutsi zaio, eta azken urteotan gora ere egin du. Espaniar Estatuak BPGaren % 9 bideratzen du pentsioak ordaintzera; Europak, berriz, BPGaren % 14 bideratzen du, batez beste.

Hala, banaketako pentsio-sistema bat dugu, non etorkizuneko pentsioak soldataren zati batetik hartzen diren¹. Hau da, pentsio-sistema programa publiko bat da, errenta-iturri bat eskaintzen duena (zirkunstantzia batzuen eraginez pertsonak errenta horiek ezin eskuratu ditzakeenerako); eta horren onurak lortzeko, aldiak ordainketa batzuk egin behar izaaten dira, hots, kotizazioak. Soldataren zati hori Gizarte Segurantzaren Kutxa Bakarrean sartzen da, eta superabita Erreserba Funtsean sartzen da. Funts hori oso preziatua da, eta, beraz, finantza-kapitalaren erasoen mende dago, zeren kapital horrek interes handia baitu aurrezki hori zuzenean kudeatzeko, pentsio-sistema pribatizatzu.

Alde horretatik, eraso hori gauzatzeko eta krisi ekonomikoaren testuin-guru honetan are gehiago gogortzeko, sistemaren bideragarritasuna zalantzian jartzen duten hitzaldiak eta adierazpenak entzuten ditugu egun.

¹ Jardunean dauden langileek kotizazioak ordaintzen dituzte orain erretiratuta dauden pertsonen pentsioak ordaintzeko. Jardunean dauden pertsona horiek erretiratzen direnean, haien pentsioak ordainduko dira une horretan lanean ari diren pertsonen kotizazioekin.

nero; era horretan, beren aurrezkiak esku pribatuetan jartzera bultzatzen dituzte langileak, pentsio-funtsen bitartez. Hau da, kanpaina etengabeak abiatzen ditutte sistema publikoa hondatzeko eta sistema pribatuak errebindikatzeko. Finantza-interesen erasoa etengabea da alde horretan; hona hemen horren adibide batzuk.

Espainiar patronalak panorama penagarria irudikatzen digu; bere esanetan, pentsio-sistema defizit egoeran sartuko da 2010eko amaieran. Eta gauza bera esaten du Espainiako Bankuaren zuzendaria.

Almunia jaunak -Gizarte Gaietako Europar Komisarioa, ministro ohia eta PSOEko kidea- hauxe esan du Madrilgo Kongresuaren Toledoko Itunaren Batzordearen aurrean: egin behar dena da lan-bizitza luzatzea, pizgarrien bidez, pentsioen etorkizuna hobetzeko xedez.

Pentsio-sistema publikoen bilakaera aldiro aztertzen duen Espainiar Batzorde parlamentarioak atera duen konklusioa da “*erreforma sakonak onartuko direla*”.

Hala eta guztiz ere, 2009ko lehenengo hiru hilabeteetan, Gizarte Segurantzak 8.249,24 milioi euroko superabita lortu du, langabeziaren igoera gorabehera, nahiz eta superabit hori 2008ko garai berekoa baino % 24 txikiagoa izan. Baino superabita da, azken batean.

Sarrerak 31.008 milioi €	Gastuak 22.758 milioi €
--------------------------	-------------------------

Eta Espainiar Gobernuko Lan Ministroak berak esan du urte hau % 0,5eko superabitez amaituko dela. Beraz, sektore ekonomiko interesatuaren aurreikuspen negatiboetatik urrun.

Kontuan hartu behar da, horri dagokionez, erreserba-funtsaren erabilerak baldintza bat bete behar duela, hots, bakarrik erabil daitekeela Gizarte Segurantzak defizita hiru seihilekotan jarraian izanez gero.

1.1. Toledoko ituna eta horren osteko erreformak

Printzipioz ezin zenez (ez ziren ausartu) sistema osorik pribatizatu, erabakia izan zen estrategia hori urratsez urrats garatzea, Toledoko Itunarekin hasita.

15 urte igaro dira Toledoko Itunak² murriztu zituenetik, lehenengo aldiz, langile-klasearen eskubide orokorrak, hots, aurreko urteetako borroken bidez langileek lortutako eskubideak. Harrezkero, erreforma batzuk egin dira, eta horiek guztiak prekaritatea eta pobrezia ekarri dituzte, pentsioak eskuratzeko baldintzak gogortzeaz batera.

Nahiz eta Itunaren testuak –modu orokorrean izan arren- banaketako sistema publikoari eusten dion, kapitalizazio-sistemari uko eginez³, ez du bukatutzat ematen banaketa/kapitalizazio eztabaidea, eta atea irekitzen die sistema mistoei.

² 1995an eratuta, pentsio-sisteman etorkizunean egingo ziren erreformen norabidea aztertu eta ezartzen du Itunak. Beraren azterketen ostean, aldaketak egin dira, kasu gehienetan CCOO, UGT eta CEOE patronalaren adostasunarekin, eta legezko neurriez berretsi dira.

³ Pertsona bakoitzak ordaintzen dituen gizarte-kotizazioak errentagarritasuna duen aktibo batean inbertitzen dira; erretiratzeko adina iristen zaionean, pertsona horrek pentsio bat jasoko du, egindako kotizazioekin eta sortutako interesekin. Kasu honetan, elkartsun-printzipioa desagertu egiten da, zeren pertsona bakoitzak bere erretiroa ordaintzen baitu.

Ate horretatik erreforma batzuk sartu ziren, bata bestearen atzean, eta 2001eko erreforman sistemaren finantziazo-iturriak bereizi ziren, edozein gizarte-babeseko sistema gidatu behar duen elkartasun-printzipioa hautsiz⁴. Alde horretatik, sistema kontributiboa kotizazioen bitartez gauzatzen da eta sistema ez-kontributiboa (pertsona behartsuenek kobraztzen dituzten pentsioak, hots, gutxieneko pentsiora iristeko osagarriak kobraztzen dituzten pertsonen pentsioak) aurrekontu publikoen bitartez. Azken batean, joera da kapitalizazio-eredurantz joatea eta banaketa-eredua ezabatzea.

Banaketa-sistemari erasotzen dion pribatizazio-estrategia horren barnean, 2003ko erreformak alderdi demografikoak azpimarratzen ditu, ekonomikoak azpimarratu beharrean, kapitalizazioaren aldekoen argudio nagusia bereganatzeko.

2006ko erreformak ezartzen dituen alderdi batzuek pentsioak eskuratzeko baldintzak gogortzen dituzte eta haien zenbatekoak murritztu, hauxe adierazten baitu:

- Erretiro-adina atzeratzeko borondatea, erretiro partziala oztopatzu (errelebu-kontrata 61 urterekin) eta lan-bizitzaren luzapena sustatzu.
- Uko egiten zaio gastuan egin behar den igoera (zahartze demografiko) enpresen kontura egiteari, eta, hortaz, soldaten eta enpresamozkinen arteko banaketa aldatu behar da. Atea zabal-zabalik uzten zaio gizarte-kotizazioen murriketari, eta diru-sarrera txikiagoa regulatzen da, pentsioen zenbateko murritzuz.
- Pentsio kontributiboa eskuratzeko exijitzen den gutxieneko kotizazio-aldia luzatzen da (15 urte).

1.2. Pentsioen aurkako eraso berria

2007an, berebiziko garrantzia hartu zuen pentsio-sistemari buruz Aurrezki Kutxek egin zuten txostenak (David Taguas txostena). Bertan, sistema pribatizazaren aldeko apustu garbia egiten da. Arrazoi politiko-engatik eta hauteskunde-arrazioengatik, pribatizazio hori ezin da aldaketa erradikal baten bitartez gauzatu, eta, beraz, poliki-poliki gauzatzera zuzendutako estrategia bat diseinatu zen. Estrategia horrek garrantzi are handiagoa hartzen du oraino krisi ekonomikoarekin, bankuek beren emaitza-kontuak hobetu behar dituztelako. Horren eraginez, erabilitako leloak hauexek dira:

- Sistema eutsiezina da eta beraren pribatizazioa saihestezina.** Horretarako erabiltzen diren argudioak hauexek dira: pentsiodunen kopuruaren igoera, bizi-itxaropenaren luzapenari lotuta; sistemaren ezgaitasuna sistema finantzatzeko; politika fiskala eta aurrekontu-politika tartearen ez sartzea, sistema orekatzeari dagokionez. Gainera, etengabeko kanpainak egiten dira finantza erakundeetatik – Espainiako Bankua, BBVA...-, etorkizuneko pentsioak plan pribatuetan sartzeko.

⁴ Egoera txarragoan dauden pertsonen babesaren bermea, sistemari ekarpena egiten dioten pertsona guztien parte-hartzean oinarritua.

- **Pentsioen zenbatekoa murriztea.** Langileek Pentsio Plan Pribatuez osatu ditzaten gero eta txikiagoak diren zenbateko horiek. Sistema publikoa gutxienekoak bermatzeaz arduratuko da gehienbat, eta gainerakoak esku pribatutik etorriko da. Pentsio-sistemara iristeko baldintzak gogortzea eta lan-bizitza osoaren kalkulua exijitzea (kalkulatzen denez, horrek % 30eko murriketa ekarriko luke). Finantzazio-iturrien bereizketan sakontzen jarraitzea.

- **Finantza-irizpideak eranstea erreserba-funtsean.** Burtsako inbertsioei lotutako errentagarritasun-irizpideak aplikatzen hastea erreserba-funtsaren kudeaketan. Burtsan jokatzea Gizarte Segurantzaren erreserba-funtsaren zenbatekoaren 1/3arekin.

- **Erretiro-adina 70 urteraino luzatzea.** Produktibilitatearen igoera kontuan hartu gabe, eta kontuan hartu gabe lan-indarra kapitalaren mesederako konsumitu eta gastatzen den merkantzia bat dela, ekoizpen-modu kapitalistan, eta –kasu gehienetan– adin fisikoa ez datorrela bat laneko esplotazioak benetan eragindako zahartzearekin.

Baina argudio horiek ez dute kontuan hartzen:

- **Ekonomia kapitalistan hemendik berrogeita hamar urtera gertatuko denari buruzko aurreikuspenak gezur hutsa direla.** Aldagai ekonomiko nagusiei buruzko epe laburreko aurreikuspenak horren froga garbiak dira.

- Zergatik aplikatzen zaie defizit kontzeptua pentsioei eta ez –adibidez– armadari, justiziari, Errege-etxeari...? Hau **lehentasun politikoen kontua delako**. Biltzen den dirua banatzeko moduari buruzko erabakia erabaki politikoa da.

- Egiten diren kalkuluetan **ez dira sartzen produktibilitatearen igoerak**.

- Krisiaren eraginez finantza-sistemak diru publikoa behar izan duenean, eman egin diote. Hala, **diru publikoaren eskualdatze eskandalagarria** ikusi dugu, zeren 150.000 milioi euro inguru bideratu baitira bankaren sektorera.

Ez dutena esaten da:

- **Kapitalizazio-sistemek askoz ere arazo handiagoak izango dituztela etorkizunean,** banaketa-sistemek baino, aseguratutako pertsonen kopuruaren hazkundeari aurre egiteko. Pentsio-funtsak espekulazioaren gorabeheren mende daude, eta ez dute prestazio finkorik bermatzen.

- **Europako herrien artean, banaketa-sistemaren pentsioak ez direla ia inon ere finantzatzen kotizazioen bidez soilik.** Estatuak bere ekarpena egiten du, diru publikoa transferituz, lagunza-pentsioak bermatzeko eta banaketa-sistema publikoaren balizko defizita berdintzeko.

- **Finantzazio-iturrien bereizketak gizarte-aseguruen sistema isolatzen duela sistema fiskaletik;** lurralte-jurisdikzio desberdinak sortzen ditu Kutxa Bakarra blindatzeko, autogobernuaren kaltean.

- **Oraingo kotizazio-ereduak enplegua zigortzen duela eta produktibilitatearen igoerak saritzen dituela.**

2. Pertsona pentsiodunen egoera Euskal Herrian

Euskal Herriko pentsio-sistemak erabakiak hartzeko gabezia estruktural larri baten mende daude, hau da, gabezia horrek modu larrian baldintzatzen ditu pentsio-sistemak. Pentsioen alorreko eskumenak Estatuei soili dagozkie. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoan, Parisen erabakitakoa aplikatzen dute, instituzio propiorik ez dutelako. Espainiar Estatuak estatuko kontu bihurtu du Gizarte Segurantzaren Kutxa Bakarreko sistema, eta Nafarroako eta EAEko Gobernuek ez dituzte lehenetsi, beren errebindikazio politiko nagusien artean, eremu soziolaboralari dagozkionak. Azken batean, Toledo Itunaren moduko tresnetatik ezarri izan diren estrategiak konpartitzen dituzte.

Alde horretatik, euskal instituzioek ez dituztenez irmotasunez errebindikatzen Gizarte Segurantzaren eremuko eskumen osoak, eta Kutxa Bakarraren haustura eskatzen ez dutenez, beren eskumenen baitan dauzen gaietan soilik jarduten dute, eta horren eraginez eredu hau sortzen dute:

- Gobernuaren jarduna gutxieneko errentak bermatzen zuzentzen da, aurrekontuen bidetik.
- Sistema osagarri pribatu bat garatzen dute: Pentsio Funts eta Plan pribatuak.
- Eta, alde horretatik, banaketa-sistematik kapitalizazio-sistemara zuzten dira.

Zein dira eredu honen benetako eta zuzeneko ondorioak? Jarraian adieraziko ditugun datu gordin-gordinak⁵.

Euskal Herriko pentsiodunen osoko kopurua 655.746 da (osoko biztanleriaren % 21,64). Hileko batez besteko pentsioaren zenbatekoa 876,24€ dira.

SPL⁶ metodoaren arabera, 303.950 pertsona pentsiodun pobrezia larriko egoeran bizi dira (94.781 pertsona) edo pobrezia erlatiboko egoeran (209.169 pertsona). Hau da, pertsona pentsiodunen ia erdiak pobrezia egoeran bizi dira.

Euskal Herriko lurrarde guztietan pentsioengatik kobratzen diren zenbaitekoek emakumeek bizi duten diskriminazioa islatzen dute argi eta garbi. Oraindik ere zaintzaile nagusitzat hartzen dira, sistemaren barnean inongo sostengurik izan gabe. Horren eraginez, emakumeek probabilitate gutxiago dituzte lan egiteko eskubidea erabiltzeko, eta familia-ardurak dituztenean probabilitate gutxiago dituzte biztanleria aktiboan jarraitzeko

⁵ Ipar Hegoa Fundazioak egindako inkestatik hartutako datuak.

⁶ Beraren arabera, pobrezia erlatiboaren muga 715€/hilean da, eta pobrezia larriarena 431€/hilean.

(lanean edo lana bilatzen). Enpleguaren sorreran dagoen gabeziak, gainera, emakumeak zigortzen ditu bereziki; izan ere, haien langabezia-tasak edo lanaldi partzialeko kontratuengatik gizonenak baino askoz ere handiagoak dira. Horri ordainsarien diskriminazioa ere gehitu behar zaio, zeren emakumeek gizonek baino % 30 gutxiago kobratzen baitute, batez beste.

Egoera bidegabeko horren ondorioz, Hegoaldeko emakumeen batez besteko pentsioa 600-650 eurokoa da. Alarguntza-pentsioen batez bestekoa ez da iristen 600 euroa, eta etxeko lanetan aritzen diren emakumeena ez da heltzen 450 euroa. Horrenbestez, bai lan merkatu arruntean aritu badira eta bai alarguntza-pentsioaren mende badaude, emakumeek miseriazko pentsioak kobratzen dituzte.

Adineko pertsonen % 44,7k dio arazo ekonomikoak dituela bere beharrak asetzeko.

3. Euskal Herrian bideragarria da gizarte segurantza sistema propioa

Euskal sistemaren bideragarritasunaren zaitasun nagusia ez da ekonomika, politikoa baizik. Pentsioek konnotazio soziopolitiko garbia dute. Hala, badira funtsezko bi argudio gure sistema ukatzeko; alde batetik, estatua jabetzen da enpresek eta langileok ordaintzen ditugun gizarte-kontribuzioez, eta bere kabuz soilik kudeatzen ditu; bestetik, sortzen ditugun ondasunen erabileraz erabakitzeko ahalmena ukatzen digu.

Oraingo eztabaidearen terminoetan eta termino ekonomikoetan, euskal pentsioen sistema estatuarena bezain bideragarria da, gutxienez; bera-ren egonkortasuna bermatzeari begira, euskal langileen pentsioak etor-kizunean berma dezaketen neurriak hartzea planteatzen dugu.

3.1. Euskal gizarte segurantza sistemaren ezaugarriak

Baina bideragarria edo egingarria ez ezik, pentsioen sistema hori egonkorra ere izan behar da; horregatik, gure proposamena Euskal gizarte segurantza sistemaren exijentzian konkretatzen da, ezaugarri hauekin:

- **Integrala izatea.** Pentsio-sistema sistema zabalago baten zati izan behar da, hots, errenten bermerako eta gizarte-babeserako sistema baten zati. Beraz, gure proposamenak finantzazio-iturrien baterakun-tza hartzen du barne, eta finantzazio fiskala lehenesten du finantziazio kontributiboaren gainetik.
- **Osoko ahalmena izatea arauen eta finantzen eremuan erabaki-zeiko.** Gizarte segurantza sistema publiko bat sortzea, gizartearen parte-hartzetik eraikia.

3.2. Euskal gizarte segurantza sistemak behar dituen oinarriak

Kalitatezko osoko enplegu politika

- Pentsioen bermea kalitateko enplegutik hasi behar da. Erretiro-pentsioak soldata diferitua diren neurrian, beharrezko da **ordainsariak eta enpleguaren egonkortasuna nabarmenki hobetzea**, pertsona guztiak pentsio duina izan dezaten bermatuta beren lan-bizitza-ren amaieran.
- Alde horretatik, bereziki beharrezko da lanaldia **murrizteko eta banatzeko politikak** sortzea, erretiroa 60 urterekin hartzeko aukera barne sartuta; era horretan, lan-merkatura iristeko zaitasun gehien dituzten kolektiboen jarduera-tasa igo ahal izango litzateke: emaku-meak, gazteak, immigranteak eta desgaitasunak dituzten pertsonak, besteak beste.

- **Gizarte-zerbitzu publikoen garapena**, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta kalitateko enplegu publikoa sortzeko.

- Laneko bizitza eta bizitza soziala **modu efektiboan uztartzeko** politika erre-alak, emakumeek soldatapeko lana eskuratzeko, gizonen baldintza eta esku-bide berberekin.

Pentsioetara bideratzen den gastu publikoa nabarmenki igotzea.

- Gaur egun pentsioetara bideratzen den gastua Europako txikienetakoa da, Spainiar Estatuko eta Euskal Herriko BPGa erreferentziatzat hartuta. Izan ere, Europako batez bestekoa baino lau puntu txikiagoa da.

Bidezko zerga politika eta progresiboa

- Ezinbestekoa da **ahaleginak egitea zergen eta aurrekontuen alorrean**; halaber, orain arte gauzatu den babes soziala errrotik aldatu behar da, gutxienez Europako batez bestekora iristeko gastu sozialean eta pentsioen gastuan.

- **Iruzur fiskalaren kontra borrokatzeko** politika efektibo bat abiatzea, gaur egun BPGaren % 21era iristen dela kalkulatzen baita; halaber, ahaleginak egin behar dira ezkutuko ekonomia azalera ekartzeko -BPGaren % 25 dela kalkulatzen da-, horrek eragozten baitie langileei bai lan duina izatea eta bai erretiro-pentsio nahikoa eskuratzea.

Gure pentsioak hemen eta orain bermatzea

- **Berme-funts** bat sortzea lehenbailehen. Funts hori sistema kontributiboaren kuoten bidez finantzatu beharko litzateke, edo itun-hitzarmen sisteman eta aurrekontu publikoen sisteman sartu.

- **Gutxieneko errenta** bermatzea, pobreziaaren mugaren gainetik. Bai enplegua ezin eskura dezaketen pertsonei eta bai erretiro-adinean daudenei gu-txieneko pentsioa bermatu beharko litzaike, pobreziaaren mugatik haratago (1.050 euro).

- **Kalitateko zerbitzu sozialen sare publikoa** garatzea, aurrekontu publikoen bidez ordaindua.

- **Bideragarritasun finantzarioa**. Aldaketa bat exijitzen dugu oraingo fiskalitate ereduan, errenta guztiekin zergak ordaindu ditzaten eskala progresibo batean; zuzeneko zergak lehenetsi daitezen zeharkako gainetik; eta iruzur fiskalarekin bukatzeko, BPGaren % 25 dela kalkulatzen baita. Sistemaren bide-ragarritasuna bermatuta dago baldin eta EAEn eta Nafarroan Europaren batez beste aplikatzen den presio fiskal berdina aplikatzen bada, eta are bermatua-go egongo litzateke iruzur fiskala eta ezkutuko ekonomia azalera ekarrisko balira. Horrek behar beste diru-sarrerak emango lizkiode Hegoaldeari EBtik bereizten gaituen diferentzia finantzatzeko, hala babes sozialaren alorrean nola gizarte-zerbitzuen eta pentsioen alorretan.

- **Pentsio-funts pribatuei ematen zaizkien laguntha fiskalak ezabatzea.**

Horiexek dira planteatzen ditugun errebindikazioak, bideragarriak direla eta bultzada sindikal irmoa behar dutela konbentzituta. Gure pentsioekin negozioa ejin nahi dutenen posizioak ideologikoki apurtzeko eta egoerari buelta eman diezaio-keen gizarte -mobilizazioa sorrarazteko. Inork ez digu ezer ere oparitu lantokietan, eta ez dute orain ere egingo.